

## 06 Ikasleen gaitasun digitala sustatzea

Gaitasun digitala irakasleek ikasleei irakatsi behar dieten zeharkako gaitasunetako bat da. Beste zeharkako gaitasun batzuk sustatzea irakasleen gaitasun digitalaren parte da, baldin eta teknologia digitalak erabiltzen badira zeharkako gaitasun horiek sustatzeko. Ikasleen gaitasun digitala sustatzea, berriz, osorik da irakasleen gaitasun digitalaren parte. Horregatik, abilezia horri arlo bat eskaini behar zaio DigCompEdu esparruan.

Ikasleen gaitasun digitala herritarrentzako gaitasun digitalerako esparru europarrean (DigComp) dago jasota. Hortaz, DigCompEdu arloak logika berari jarraitzen dio, eta bost gaitasun zerrendatzen ditu, DigCompekin bat datozenak edukiari eta deskribapenari dagokienez. Tituluak, ordea, egokitu egin dira, esparru horren barruan alderdi eta ikuspegi pedagogikoa nabarmentzeko.



## Ikasleen gaitasun digitala sustatzea



### Alfabetatze mediatikoa eta informazio-arlokoa

Ikasteko jarduerak, atazak eta ebaluazioak txertatzea, ikasleak behartzen dituztenak informazio-premiak antolatzea, ingurune digitaletan informazioa eta baliabideak bilatzera, informazioa antolatu, prozesatu, aztertu eta interpretatzera, eta informazioaren eta iturrien sinesgarritasuna eta fidagarritasuna konparatu eta kritikoki ebaluatzea.



### Komunikazio eta lankidetzeta digitala

Ikasteko jarduerak, atazak eta ebaluazioak txertatzea, ikasleak behartzen dituztenak tresna digitalak eragin-kortasunez eta modu arduratsuan erabiltzera komunikaziorako, lankidetzarako eta partaidetzeta zibikorako.



### Eduki digitalak sortzea

Ikasteko jarduerak, atazak eta ebaluazioak txertatzea, ikasleak behartzen dituztenak beren burua baliabide digitalen bidez adieraztera eta eduki digitala hainbat formatutan egokitu eta sortzera. Ikasleei irakastea copyrighta eta lizentziak nola aplikatzen diren eduki digitaletan, iturrien aipua nola egiten diren eta lizentziak nola aplikatzen diren.



### Erabilera arduratsua

Neurriak hartzea ikasleen ongizate fisiko, psikologiko eta soziala bermatzeko, teknologia digitalak erabiltzean. Ikasleak ahalduntzea arriskuak kudeatu eta teknologia digitalak modu seguru eta arduratsuan erabili ditzaten.



### Baliabide digitalen bidez arazoak konpontzea

Ikasteko jarduerak, atazak eta ebaluazioak txertatzea, ikasleak behartzen dituztenak arazo teknikoak identifikatu eta konpontzera edo ezagutza teknologikoa sormenez beste egoera batzuetara transferitzera.